PRIMERO.- I.- Aprobar, con carácter definitivo, el nuevo Estudio de Detalle presentado por D. GONTZAL ELGUEZABAL AYALA, en nombre y en representación de la mercantil ETXEBIZ, S.L., para la adecuación de los volúmenes y alineaciones del edificio a ubicar en la parcela III resultante del proyecto de reparcelación aprobado para la Unidad de Ejecución 27.4-"San Nikolas", redactado por el Arquitecto Sr. Darriba Robledo y visado por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro el 21.01.10, que sustituye al aprobado definitivamente en sesión plenaria de 27.04.09, debiendo tener en cuenta las consideraciones apuntadas a la aprobación inicial.

II.- Akordio hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

II.- Publicar este acuerdo, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Interesdunei jakinaraztea, egoki iritzitako errekurtsoak adierazita.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

BIGARRENA.- Alkatetza-Lehendakaritzari eskumena ematea akordio hau ebazteko egoki iritzitako xedapenak luzatzeko.

SEGUNDO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**107.- <u>BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZAKO HITZARMENAREN ERANSKINA ONARTZEA ONDOKO FORU</u>**

**107º.- <u>APROBACIÓN DEL ANEXO AL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA EN RELACIÓN A LA</u>**

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

**ERREPIDEARI DAGOKIONEZ: BI-3737: P.K. 16+245-TIK (OLLARRETXE KALEA) P.K 17+000-RA (ORMAZA ERROTONDA).**

Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako Informazio-Batzordeak hala eskatuta, ondokoa adostu zen aho batez:

LEHENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren-Obra Publikoak Sailaren eta Getxoko Udalaren arteko Lankidetza Hitzarmenaren Eranskina onartzea, 1997ko apirilaren 28an sinatutako Hitzarmenaren Eranskin bezala, ondoko errepideari dagokionez: BI-3737: P.K. 16+245-TIK (OLLARRETXE KALEA) P.K 17+000-RA (ORMAZA ERROTONDA), I. DOKUMENTUAN bildutako terminoen arabera (BIZKAIKO FORU ALDUNDIA- OBRA PUBLIKOAK ETA GARRAIO SAILAREN ETA GETXOKO UDALAREN ARTEAN 1997KO APIRILAREN 28AN SINATUTAKO LANKIDETZAKO HITZARMENAREN II. ERANSKINA), behar bezala izapidetuta dagoena espedientean.

BIGARRENA.- Udal Inbentarioan biltzea, behin Bizkaiko Foru Aldundiak aurretiaz aipatutako tarteen lagapena egin ostean.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Lehendakaritzari eskumena ematea akordio hau ebazteko egoki iritzitako xedapenak luzatzeko.

**CARRETERA FORAL BI-3737: P.K. 16+245 (C/OLLARRETXE) AL P.K. 17+000 (ROTONDA DE ORMAZA).**

A propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por unanimidad:

PRIMERO.- Aprobar el Anexo al Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Obras Públicas, y el Ayuntamiento de Getxo como Anexo al Convenio suscrito con fecha 28 de abril de 1.997 y con respecto al vial BI 3737: P.K. 16+245 (C/ OLLARRETXE) AL P.K. 17+000 (ROTONDA ORMAZA), en los términos recogidos en el DOCUMENTO I (ANEXO II AL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA – DEPARTAMENTO DE OBRA PÚBLICAS Y TRASNPORTES, Y EL AYUNTAMIENTO DE GETXO CON FECHA 28 DE ABRIL DE 1997), que debidamente diligenciado obra en el expediente.

SEGUNDO.- Recoger en el Inventario Municipal, una vez realizada la cesión por parte de Diputación Foral de Bizkaia de los tramos anteriormente indicados.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**108.- PARTIDO POPULAR ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ARGI-INDARRAREN KONTSUMOKO LEHIAKETA.**

Jesús Toca jaunak erreferentziazko Mozioa irakurri du.

Álvaro González jaunak Gobernu taldearen izenean adierazi du gai hau Batzorde Informatiboan aztertzeko edo galdetzeko gaia zela. Hori egin izan balitz adieraziko zitzaion, dagoeneko, osatu direla enkanterako plegu teknikoak eta administrazio pleguak onesteko daudela. Horrez gain, adierazi du ere Getxo Kirolak elkartea ez litekeela enkantean sartu energia altan hartzen duelako eta ondoren eraldatzen duelako. Eskatu du, beraz, Mozioa atzera botatzea, eta esan du ez baldin badela mozioa bertan behera uzten, abstenituko direla botazioan.

Toca jaunak errepikatu du Batzorde Informatiboan, Presidenteari eta Gobernu taldeari informatzea dagokiela, eta oposizioari, berriz, galde egitea, eta uste du gai hau, enkantearen uneko egoeraren berri emateko behar bezain garrantzitsua dela. Talde gisa ez dute ulertzen, elektrizitatearen kontratazioa liberalizatu denetik zergatik ez den enkante prozedurarik egin. Kritikatu du Alderdi Popularrak Mozio bat planteatu duenean bakarrik Gobernu taldeak gai horretan lan egiten ari dela adierazi duela. Amaitzeko, adierazi du ez duela ulertzen astelehenetik Mozioaren berri izan ondoren, zergatik Osoko bilkurara arte itxaron dela erantzuna emateko eta oposizioari eta hiritarrei, egiten ari den lanaren berri emateko. Uste du hori

**108º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CONCURSO CONSUMO ELÉCTRICO.**

Jesús Toca da lectura a la Moción de referencia.

Álvaro González en nombre del equipo de Gobierno indica que este es un tema que lo lógico sería que hubiese sido tratado o preguntado en la Comisión Informativa, en cuyo caso se le hubiera indicado que están ya elaborados los pliegos técnicos para la licitación y se está pendiente de la elaboración de los pliegos administrativos. Indica también que Getxo Kirolak no podría entrar en la licitación ya que adquiere la energía en alta y luego la transforma. Pide por tanto que se retire la Moción manifestando que en caso de no retirarse se abstendrán.

El Sr. Toca replica que en la Comisión Informativa corresponde al Presidente y al equipo de Gobierno informar y a la oposición preguntar, y estima que este tema es de una importancia suficiente como para que pudiera haber sido objeto de información el estado actual de la licitación. No entienden como grupo, que desde que se ha liberalizado la contratación de la electricidad no se haya realizado un procedimiento de licitación. Critica que solamente cuando el grupo Popular plantea una Moción es cuando el equipo de Gobierno indica que está trabajando sobre esa cuestión. Finaliza manifestando que no entiende que conociendo la Moción desde el lunes, se espere hasta el Pleno para dar la respuesta y para informar de lo que se está haciendo tanto a la oposición

guztia kudeaketa politiko okerra dela.

como a los ciudadanos, lo cual le parece una mala gestión política.

Álvaro González jaunak adierazi du horren berri emateko asmoa zuela plegu guztiak amaitzen zirenean, baina ez duela informazioa zatika emateko inolako arazorik.

Álvaro González indica que iba a informar cuando estuvieran finalizados los pliegos en su totalidad, pero que no tiene problemas en informar parcialmente.

Joseba Arregi jaunak esan du planteatu den bezalako enkante baten prozesuaren plegu teknikoak ez direla astebetean egiten eta enkante bat egin arren, nekez jaitsiko dela ordaintzen den zenbatekoa, elektrizitatearen prezioak, aurtengo hilabetetan, % 20 baino gehiago igo direlako.

Joseba Arregi manifiesta que los pliegos técnicos de un proceso de licitación como el que se plantea no se realizan en una semana, y que pese a que se realice una licitación, difícilmente va a bajar la cuantía que se abona ya que los precios de la electricidad han subido más de un 20% en lo que va de año.

Erreferentziazko Mozioa botaziora eraman ondoren, honako emaitza lortu da: PP eta PSE-EE alderdien aldeko 14 boto eta EAJ eta A alderdien 10 abstentzio.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor del PP y PSE-EE y 10 abstenciones del PNV y A.

Ondorioz, gehiengoaren bidez honakoa adostu da:

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"KONTSUMO ELEKTRIKOAREN LEIHAKETA

"CONCURSO CONSUMO ELÉCTRICO

Energia elektrikoaren sektorea liberalizatzeko esparru berriari esker, partikularrek eta erakundeek merkatuan aurkezten diren eskaintza desberdinen artean aukera egin dezakete energia elektrikoa zerbitzurik hoberenak eskaintzen dituen enpresari "erosteko".

El nuevo marco de liberación del sector de la energía eléctrica, permite a los particulares e instituciones poder elegir entre las diversas ofertas que se presentan en el mercado para "comprar" la energía eléctrica a la empresa que ofrezca los mejores servicios.

Argi dago krisialdian, helburu nagusia aurreztea dela, eta horregatik, uste dugu Udala egungo gastu arrunta jaisten saiatu beharko litzatekeela, gehiegizkoa delako, alegia: aurrekontuaren % 89´14. Gastu hori jaisteko era bat lehiaketa publiko baterako deialdia egitea izan daiteke,

Es evidente que el objetivo principal en época de crisis es ahorrar, y por ello consideramos que el Ayuntamiento debería hacer un esfuerzo por reducir su actual gasto corriente que es totalmente desmesurado ya que asciende a un 89´14% del presupuesto. Una forma de reducir este gasto puede

udal eraikin guztien, argiztapen publikokoaren eta erakunde autonomoen hornidura elektrikoa kontratatzeko.

ser proceder a convocar un concurso público para la contratación del suministro eléctrico de todos los edificios municipales, alumbrado público y entes autónomos

Izan ere, gaur egun, eta 2010eko aurrekontuen arabera, Udalak 836.450 euroko/urteko kontsumo elektrikoa dauka eta gainontzeko erakunde autonomoena, berriz (Musika Eskola, Egoitza, Fadura, Kultur Etxea) 403.341´60 euro/urteko dira. Hau da, guztira 1.239.791´60 euroko/urteko kontsumo elektrikoa egiten da.

Y es que actualmente, y según se desprende de los presupuestos de 2010, el Ayuntamiento tiene un consumo eléctrico de 836.450 euros/anuales y el del resto de entes autónomos (Escuela de Música, Residencia, Fadura, Aula de Cultura) asciende a 403.341´60 euros/anuales. Es decir en total supone un consumo eléctrico de 1.239.791´60 euros/anuales.

Uste dugu lehiaketa publikoari esker, elektrizitateko gastuaren % 10 eta 20 artean aurreztea lor zitekeela. Eta hein berean, udalerriko eraginkortasun energetikorako eskaintzak jaso litezke energia aurrezten duten instalazioak eginez edo argien mantenuan ordainduz. Azken horiek, lehiaketan, horri erantsitako hobekuntza gisa hartu behar dira barne.

Consideramos que con el concurso público se podría conseguir ahorrar de un 10 a un 20% del gasto en electricidad. Y así mismo, recibir ofertas para la mejora de la eficiencia energética del municipio con la instalación de sistemas de ahorro energético o el pago del mantenimiento del alumbrado, que tienen que ser incorporadas en el concurso como mejoras añadidas al mismo.

Hori guztia dela eta, Udaleko Alderdi Popularrak, Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko eta ontzat emateko, honako akordio proposamena egin du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular eleva ante este Pleno para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

LEHENENGOA.- Ahalik eta lasterren, eta beharrezko izapideak egin ondoren, lehiaketa publikorako deialdia egitea, Udaleko eta erakunde autonomoetako hornidura elektrikoa kontratatzeko.

PRIMERO.- Que a la mayor brevedad, y previos los tramites necesarios, se proceda a la convocatoria de un concurso publico para la contratación del suministro eléctrico del Ayuntamiento y los entes autónomos

BIGARRENA.- Mozio honen berri ematea udaleko komunikabideen bidez.”.

SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.”.

**109.- PARTIDO POPULAR ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HIRI-BARATZE EKOLOGIKOAK SORTZEKO.**

Jone Ruiz de Eguilaz andreak erreferentziazko Mozioa irakurri du, eta ondoren botaziora eraman da, honako emaitza lortuz: PP eta A alderdien aldeko 11 boto, EAJ alderdiaren aurkako 9 boto eta PSE-EE alderdiaren 4 abstentzio.

Ondorioz, gehiengoaren bidez, zera adostu da:

"HIRI BARATZ EKOLOGIKOAK SORTZEA

Estatu Batuek, Argentinak, Ingalaterrak, Alemaniak edo Frantziak tradizio luzea dute Hiri Baratz Ekologikoen garapenean eta sustapenean. Espainian, Valentziak, Lugok, Madrilek, Bartzelonak, Santanderrek edo Gasteizek parte hartzen dute horrelako xarma duten hirien sarean. Existitzen den eskaerak, lur-zati bat eskuratzeko itxaron zerrenda luzeekin, hiritarren artean izandako arrakasta ona islatzen du.

Hiri Baratzak hirian bertan garatutako natura hutsa, iraunkorra eta ekologikoa dira. Adinduek erabiltzeko lur-zatietan banatzen dira, baita langabetuentzat, elkarteentzat, eskola-haurren bisitetarako eta ingurumen esparruko praktikak egiteko ere. Horrez gain, baratz txikiak mahaietan instalatu dira ere, minusbaliotasunaren bat dutenek estalperik gabeko landaketez gozatu ahal izateko.

**109º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/CREACIÓN DE HUERTOS URBANOS ECOLÓGICOS.**

Jone Ruiz de Eguilaz da lectura a la Moción de referencia, que es sometida seguidamente a votación con el siguiente resultado: 11 votos a favor del PP y A, 9 en contra del PNV y 4 abstenciones del PSE-EE.

En consecuencia, por mayoría se acordó:

"CREACIÓN DE HUERTOS URBANOS ECOLÓGICOS

Estados Unidos, Argentina, Inglaterra, Alemania o Francia cuentan con una gran tradición en el desarrollo y fomento de Huertos Urbanos Ecológicos. Ya en España, Valencia, Lugo, Madrid, Barcelona, Santander o Vitoria forman parte de la red de ciudades que poseen este tipo de atractivo. La demanda existente, con largas listas de espera para la concesión de una parcela, demuestra su gran éxito entre los ciudadanos.

Los Huertos Urbanos son naturaleza pura, sostenible y ecológica en plena ciudad. Se distribuyen en parcelas para el uso de mayores, pero también para desempleados, asociaciones, visitas de escolares para realizar prácticas medioambientales Además, se instalan pequeños huertos en mesas para que quienes sufren discapacidad también puedan disfrutar de las plantaciones al aire libre.

Ekimen honen helburua, batez ere, gure adinduak gizarteratzea da. Horientzat baratzak letxugak edo tomateak landatzea baino zerbait gehiago dira, etxetik ateratzeko, jendearekin erlazionatzeko, lagunak egiteko, denbora konpartitzeko gogoa berreskuratzen laguntzen die, euren buruak erabilgarri sentituz, ilusioa eta poza mantenduz...

Esta iniciativa se dirige principalmente a la integración de nuestros mayores. Para ellos los huertos son mucho más que plantar lechugas o tomates, suponen recuperar las ganas de salir de casa, relacionarse, hacer amigos, compartir su tiempo sintiéndose útiles, mantener la ilusión y la alegría…

Hiri Baratzek onura anitz ekartzen dituzte. Adinduen elkar bizitza eta gizarteratzea sustatzeaz gain, euren parte-hartze aktiboaren bidez, batez ere, euren garrantzi ekonomikoa azpimarratu behar da, baratzei esker norberaren kontsumoa garatu daitekeelako eta hori ezinbestekoa da gaur egungoa bezalako krisi-garaian. Halaber, euren alderdi ekologikoa nabarmendu behar da ere, ingurumen iraunkortasuneko irizpideetan oinarritutako nekazaritza tradizionala eta ekologikoa suspertzen dutelako. Era berean, baratzen heziketarako balio handia dute, alde batera utzi gabe garapen iraunkortasuneko ideia sustatzen duten eta gutxiegi erabilitako arean indarberritzen dituzten kultur eta aisialdirako aukera bat direla.

Los Huertos Urbanos implican numerosos beneficios. Además de fomentar la convivencia y la integración social de las personas mayores mediante su participación activa, sobre todo hay que resaltar su importancia económica, ya que los huertos posibilitan el autoconsumo, que se vuelve realmente importante en épocas de crisis como en la que nos hayamos inmersos. También señalar su aspecto ecológico, al promover la agricultura tradicional y ecológica basada en criterios de sostenibilidad medioambiental. Asimismo, los huertos tienen un gran valor educativo, sin olvidar que constituyen una alternativa cultural y de ocio activo que fomenta la idea de desarrollo sostenible, revitalizando áreas infrautilizadas.

Hori guztia dela eta, Getxoko Udaleko Alderdi Popularrak hurrengo akordio proposamena aurkeztu du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente propuesta de acuerdo:

LEHENENGOA.- Udaleko Osoko Bilkurak Getxoko Udalari eskatzea, udalerriko iraunkortasun programaren barruan, Hiri Baratz Ekologikoren Proioektu bat abian jartzea, getxotarrek ingurumena errespetatzen duen nekazaritza berreskuratzeko eta mantentzeko prozesuan parte hartzearen alde eginez, eta aldi berean kultur eta aisialdiko aukera berri bat sortuz, eta batez ere, gure adinduei,

PRIMERO.- El Ayuntamiento en Pleno insta al Alcalde de Getxo para que, dentro del programa de sostenibilidad del municipio, ponga en marcha un Proyecto de Huertos Urbanos Ecológicos, fomentando así la participación de los getxotarras en la recuperación y mantenimiento de una agricultura respetuosa con el medioambiente, creando al mismo tiempo una alternativa cultural y de

gizarte, olgeta, terapia eta hezkuntza izaerako jarduerak bateratzen diren gune bat eskainiz, euren osasun eta ongizate pertsonalekiko onurak lortzeko.

ocio, y facilitando, sobre todo a nuestros mayores, un espacio donde coexisten actividades de carácter social, lúdico, terapéutico y educativo, y se obtienen efectos beneficios sobre la salud y el bienestar personal.

BIGARRENA.- Hiri Baratz Ekologikoak terrazetan, zabaltzetan eta balkoietan sortzearen aldeko ekimenak garatzea. Aukera horri esker, baliabide gutxiko edo mugikortasun murritzeko hiritar askok (zaharrak eta minusbaliatuak) euren frutak eta barazkiak landatu ahal izango dituzte, etxetik atera gabe, horrek dakartzan onura guztiekin.

SEGUNDO.- Se desarrollen iniciativas para potenciar la creación de Huertos Urbanos Ecológicos en terrazas, azoteas y balcones, opción que permitirá a muchos ciudadanos con recursos escasos o problemas de movilidad, como ancianos y personas con discapacidad, poder cultivar sus frutas y hortalizas sin salir de casa, con todos los beneficios que ello comporta.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri ematea udaleko komunikabideetan".

TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.".

Se ausenta de la sesión el Teniente de Alcalde Koldo Iturbe.

Se ausenta de la sesión el Teniente de Alcalde Koldo Iturbe.

**110.- PARTIDO POPULAR ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXO ANTZOKIAREN 3. EGITALDIKO LEHIAKETA DEUSEZTATZEKO.**

**110º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ANULACIÓN DEL CONCURSO CORRESPONDIENTE A LA FASE 3 DEL GETXO ANTZOKIA.**

Eduardo Andrade jaunak hurrengo Mozioa irakurri du:

Eduardo Andrade da lectura a la siguiente Moción:

"GETXO ANTZOKIKO 3. FASEARI DAGOKION LEHIAKETA BALIOGABETZEA

"ANULACIÓN DEL CONCURSO CORRESPODIENTE A LA FASE 3 A DEL GETXO ANTZOKIA

Asteartean, 2010eko ekainaren 16an, Udal honen Tokiko Gobernu Batzar

El pasado martes 16 de Junio de 2010, la Junta de Gobierno Local de este

honek ontzat eman zuen SESTRAPEKO EGITURAKO 3 A FASEARI DAGOKION ANTZOKI BERRIKO PROIEKTURAKO LEHIAKETAREN DEIALDIA, enkanteko 3.408.087,17 eurotan eta 13 hilabeteko exekuzio epearekin.

Ayuntamiento aprobó la CONVOCATORIA DEL CONCURSO del PROYECTO DEL NUEVO ANTZOKIA FASE 3 A ESTRUCTURA BAJO RASANTE, por un importe de licitación de 3.408.087,17€ y un plazo de ejecución de 13 meses.

Lehiaketa hau martxan jartzearekin bete da Udal alderdi honek dagoeneko, Getxo Antzokiaren Oinarrizko Proiektua onesterakoan, 2010eko apirilaren Osoko Bilkuran salatu zuena, alegia; legealdi honen kontratu nagusia Osoko Bilkuren areto honen kontroletik kanpo geratu dela.

Con la puesta en marcha de este concurso se cumple lo que este grupo Municipal ya denunció en el pleno de Abril de 2010 con la aprobación del Proyecto Básico del Getxo Antzokia, que el principal contrato de esta legislatura se queda fuera del control de este salón de Plenos.

Izan ere, 2010eko apirilean, EAJ alderdiak, PSE alderdiaren laguntzarekin, 32.169.440,00 eurotako Antzokiko proiektua sei fasetan zatitu zuen, beraz, erabat ezabatu zen Osoko Bilkura honen kontratazio-kontrol guztia:

Y es en Abril de 2010, el PNV con el apoyo del PSE, procedieron a dividir el proyecto del Antzoki por importe de 32.169.440,00 € en seis fases, de forma que se elimina de un plumazo todo control de esta contratación por parte del Pleno:

Bertan behera utzi da, proiektua ontzat emateko eta kontratazio hori zuzendu behar duten baldintza teknikoen eta administratiboen pleguak ontzat emateko Osoko Bilkurari dagokion erantzukizuna.
Bertan behera utzi da osoko bilkurako kontratazio mahaiak parte hartzearen beharra (bertan alderdi guztiek parte hartzen dugu). Mahai horrek aurkezten diren enpresa guztien eskaintzen gardentasuna eta legalitatea ikuskatu behar ditu.

Se elimina que sea el Pleno el que apruebe el proyecto y los pliegos de condiciones técnicas y administrativas que deba regir esta contratación.

Se elimina la intervención de la mesa de contratación del pleno, en la que estamos presentes todos los partidos, y que debe supervisar la transparencia y legalidad de la apertura de las ofertas de todas las empresas que se presenten.

Eta azkenik bertan behera utzi da legealdi osoan, garrantzitsuena den lan exekuziorako kontratua ontzat emateko osoko bilkurari dagokion erantzukizuna.

Y por ultimo, se elimina que sea el pleno el que tenga que proceder a la aprobación del contrato de ejecución de la obra más importante de toda la legislatura.

Era berean, Gobernu Taldeak, PSE alderdiaren laguntzarekin, arau-hauste

Incurre asimismo el equipo de Gobierno con el apoyo del PSE, en una

argia egin du, Estatuko Kontratuei buruzko Legeko 74. artikuluak diona ez betetzeagatik. Zera dio:

*"2.-Kontratu bat ezingo da zatitu horren zenbatekoa murrizteko helburuarekin eta publizitateko baldintzak edo dena delako prozedurari dagozkionak alde batera uzteko helburuarekin.*
*3.- Kontratuaren xedeak zatitzeko aukera ematen duenean eta zati bakoitzaren espedientean hala behar bezala justifikatzen denean, sortetan zatituz, baldin eta horiek banaka erabiltzeko edo aprobetxatzeko aukera badago eta unitate funtzionala osatzen badute, edo xedearen izaerak hala exijitzen duenean.*
*Era berean, prestazio desberdinak bereiz kontratu ahal izango dira, horrelako lan batean barne hartzeko... aipatutako prestazioek bereiz exekutatzeko aukera ematen duten berezko sustantibitatea dutenean, gaikuntza zehatza duten enpresekin egin behar izateagatik.."*

Hau da, lege honek espresuki debekatzen du gobernu talde honek egin nahi duena, hau da; kontratua zatitzea kontratazioari dagozkion baldintzak alde batera uzteko, osoko bilkura saihestu duelako, EAJ eta PSE alderdiek nahi dutena eta nahi dutenean kontratatu ahal izateko.

Hori guztia dela eta, Udaleko Alderdi Popularrak Osoko Bilkura honetan, eztabaidatzeko eta ontzat emateko, honako akordioa proposatu dute:

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa bertan behera geratzea, SESTRAPEKO EGITURAKO 3. FASEARI DAGOKION ANTZOKI BERRIKO PROIEKTURAKO LEHIAKETAREN DEIALDIARI dagokionez.

clara ilegalidad al incumplir lo establecido por la Ley de Contratos del Estado que en su articulo 74, dice:

*"2.-No podrá fraccionarse un contrato con la finalidad de disminuir la cuantía del mismo y eludir así los requisitos de publicidad o los relativos al procedimiento que correspondan.*
*3.- Cuando el objeto del contrato admita fraccionamiento y así se justifique debidamente en el expediente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, siempre que estos sean susceptibles de utilización o aprovechamiento separado y constituyan unidad funcional, o así lo exija la naturaleza del objeto.*
*Asimismo podrán contratarse separadamente prestaciones diferenciadas dirigidas a integrarse en una obra tal ….cuando dichas prestaciones gocen de una sustantividad propia que permita una ejecución separada por tener que ser realizadas por empresas que cuenten con una determinada habilitación."*

Es decir, esta ley prohíbe expresamente lo que este equipo de gobierno pretende, esto es, fraccionar el contrato para eludir los requisitos relativos a la contratación, al quitarse de en medio al pleno municipal para poder contratar como, cuando y a quien el PNV y el PSE quieran.

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular eleva ante este Pleno para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

PRIMERO.- Que se anule el acuerdo de la Junta de Gobierno Local relativo a la CONVOCATORIA DEL CONCURSO del PROYECTO DEL NUEVO ANTZOKIA FASE 3ª - ESTRUCTURA BAJO RASANTE.

BIGARRENA.- Mozio honen berri ematea udaleko komunikabideetan".

SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.".

Horrez gain, Andrade jaunak adierazi du ere Gobernu taldeko helburua, oinarrizko proiektua zatitzerakoan, fasetan zatitzea zela, eta Alderdi Popularrak ez zuela onetsi neurriekin bat etorri ez zirelako eta horrez gain, proiektua gezurretan oinarrituta dagoela, Telefonica konpainia bere higiezina saltzeko prest egoteari dagokionez, eta baita obskurantismoan ere, etorkizunari begira bideragarritasun ekonomikoko azterketa bat egin nahi ez delako, eta Arregi jaunari gogoratu dio, prentsan, bere gain hartu zuela Osoko Bilkurak adjudikazio guztiak egitearen konpromisoa, eta adierazi zuela Alderdi Popularrak "esandakoa" jan egin beharko zuela, gai hura zalantzan jartzeagatik, baina, orain esandakoa bete ez duena Arregi jauna bera da. Proiektua fasetan zatitzea kritikatu du legearen aurkakotzat jotzen duelako, eta esan du, zatiketa horren helburu bakarra, Alkateak prentsan esan duen bezala, eraikina ahalik eta azkarren eraikitzea da, Alderdi Popularrak, hauteskundeak irabazten baditu, aipatutako proiektua gelditzea saihesteko.

Indica además el Sr. Andrade que el objetivo del equipo de Gobierno al aprobar el proyecto básico era dividirlo en fases, y el grupo Popular no lo aprobó porque estaba en desacuerdo con sus dimensiones y que además el proyecto se basa en mentiras en relación a la disposición de Telefónica para vender su inmueble, en el oscurantismo porque no quiere realizarse un estudio de viabilidad económica a futuro, y recuerda al Sr. Arregi que se comprometió en prensa a que el Pleno iba a realizar todas las adjudicaciones, llegando a manifestar que el grupo Popular tendría que "comerse sus palabras", porque había dudado de esa cuestión, y que sin embargo ahora el que incumple lo manifestado es el Sr. Arregi. Critica la división en fases por considerarla que es ilegal, y que únicamente está buscando, tal como ha dicho el Alcalde en la prensa, agilizar al máximo la construcción del edificio para evitar que el grupo Popular, si gana las elecciones, pueda paralizar dicho proyecto.

Arregi jaunak Andrade jaunari erantzun dio, esanez ezin dela fidatu prentsan agertzen diren gauza guztiekin, baizik eta jatorrizko iturrietara jo behar duela. Gogoratu du Getxoko Antzokiari dagokion gaia zortzitan pasa dela osoko bilkuratik, eta proiektuak bat egiten duela ezarritako blokearen hirigintza mugekin, dagoeneko plantaren diseinua eta altuerak proiektuan bertan agertzen

El Sr. Arregi replica al Sr. Andrade manifestando que no se puede fiar de todo lo que indica la prensa sino que hay que ir a las fuentes originales. Recuerda que ocho veces ha pasado la cuestión del Getxo Antzokia por el Pleno, y que el proyecto responde a una delimitación urbanística de bloque impuesto, que recogía ya el diseño de planta y alturas, que fue aprobado también por el grupo Popular, así como

zirela, Alderdi Popularrak ere proiektu hori onetsi zuela, eta lehenengo fasearen exekuzioak ez zuela Alderdi Popularreko aurkako botoa jaso. Fasetan zatitzea legezkoa izateari edo ez izateari dagokionez, Idazkari Nagusiaren txostena ekarri da, Alderdi Popularrak eskatuta egina. Udaleko alderdi politiko guztiek txosten kopia bana dute. Alderdi guztiei berriz Kontratazio Mahaiaren bilkuretara joateko gonbitea egin die eta amaitzeko, kritikatu du Alderdi Popularrak, epe laburreko gai politikoak direla eta, lan politikoetan aritzen den jendearen irudia zikintzen jardutea, horretarako, pertsonen izen ona kenduz.

que la ejecución de la primera fase no tuvo el voto contrario del grupo Popular. En relación a la legalidad de la división en fases se remite al informe del Secretario General, que se realizó a solicitud del grupo Popular, del que disponen de una copia todos los grupos políticos municipales. Reitera la invitación a todos los grupos a asistir a todas las sesiones de la Mesa de Contratación y finaliza su intervención criticando que el grupo Popular por cuestiones políticas de corto plazo se dedique a enturbiar la imagen de la gente que se dedica a las labores políticas, utilizando para ello descalificaciones personales.

Andrade jaunak erantzun du jendeari ez diola izen ona kendu, baizik eta gogora ekarri dituela beste korporatiboek egindako adierazpenak. Errepikatu du proiektua zatitu egin dela Osoko Bilkuraren kontrola alde batera uzteko, eta oposizioari ere ez zaiola uzten Kontratazio Mahaian botorako gaitasunekin lan egiten. Kritikatu du Gobernu taldea ez dela ohartzen proiektua, Getxoko kultur premiak ez direla konpontzen Getxoko blus jaialdiko bi egunetan mila lagun baino gehiago bildu zirela adibide gisa jarrita, eta horrenbestez, ezingo zela jaialdi hori Getxo Antzokian antolatu.

El Sr. Andrade replica que no ha realizado descalificaciones personales sino que ha recordado manifestaciones que se han realizado por otros corporativos. Insiste en que se divide el proyecto para eludir el control del Pleno, y que tampoco se deja a la oposición ir realmente a trabajar con capacidad de voto en la Mesa de Contratación. Critica al equipo de Gobierno que no se dé cuenta que el proyecto no resuelve las necesidades culturales de Getxo, poniendo como ejemplo que en las dos jornadas del festival de blues de Getxo la asistencia del público superaba el millar, con lo que no podría celebrarse ese festival en el Getxo Antzoki.

Erreferentziazko Mozioa botaziora eraman ondoren, atzera bota da PP Alderdiko aldeko 11 boto eta EAJ eta PSE-EE alderdiko aurkako 12 boto lortu dituelako.

Sometida la Moción de referencia a votación, es desestimada al obtener 11 votos a favor del PP y A y 12 en contra del PNV y PSE-EE.

**111.- <u>PARTIDO POPULAR</u>**

**111º.- <u>MOCIÓN DEL GRUPO</u>**

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

**ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GOBELA ERREKAREN ZABALA LEHENGORATZEKO.**

Eduardo Andrade jaunak erreferentziazko Mozioa irakurri du. Ondoren, aipatu du Mozioaren arrazoia Eusko Jaurlaritzak aginduko lan-etendura aprobetxatzea dela, eta ibai ibilguaren oztopo guztiak kentzea, eta horretarako, ibilguari jatorrizko zabalera itzultzeko unea da, horrek Gobela ibaiak gainezka egiteko arriskua gutxituko luke, eta pasealekuak ibaiaren goiko magalean jarraituko luke.

Arregi jaunak adierazi du Mozioak akatsak dituela eta gogora ekarri du Udaleko Osoko Bilkurak exekutatzen den lana egitea ahobatez onetsi zuela eta egurrezko pasealekua kentzeko asmoa duela gorago dagoen kota batera eramateko. Lanarekin gune natural bat berreskuratu nahi da, egungo ur laminara iristen den zonalde berde batekin, eta hala planteatu zaio URA-ri, baina ez dago egungo ur lamina handitzearekin ados, ibaiak oso emari gutxi duelako.

Andrade jaunak erantzuteko, adierazi du Alderdi Popularra ezpondan eta proiektuan aurreikusitako jardueretan lan egiteko ados dagoela, baina eskatu du ibilguak oro har duen zabalera mantentzeko, eta ez, berriz, egungo estugunea.

Almansa jaunak aipatu du Alderdi Sozialista abstenituko dela Uraren Euskal Agentziak (URA) igorri beharreko txostenen zain, ibilguan aurreikusitako jarduerei buruzkoa.

**MUNICIPAL POPULAR S/RECUPERAR LA ANCHURA DEL RÍO GOBELA.**

Eduardo Andrade da lectura a la Moción de referencia. Indica a continuación que la razón de la Moción es que se aproveche la paralización de las obras que ha ordenado el Gobierno Vasco, y que se eliminen todos los obstáculos del cauce del río, y para ello es el momento para devolver al cauce su anchura original, lo que reduciría el riesgo de desbordamiento del Gobela, trasladando la continuidad del paseo en la parte de la ladera superior del río.

El Sr. Arregi manifiesta que la Moción contiene imprecisiones y recuerda que el Ayuntamiento en pleno por unanimidad acordó realizar la obra que se está ejecutando y que plantea eliminar el paseo de madera para trasladarlo a una cota superior. La obra pretende recuperar un espacio natural, con una zona verde que llegue a la lámina de agua actual, y así se ha planteado a URA, que no está de acuerdo en ampliar la lámina de agua actual por el escaso caudal que discurre por el río.

El Sr. Andrade replica manifestando que el grupo Popular está de acuerdo en trabajar sobre el talud y en las actuaciones previstas en el proyecto, pero pide que se mantenga la anchura que tiene en general el cauce, y no mantener el actual estrechamiento.

El Sr. Almansa indica que el grupo Socialista se va a abstener a la espera de los informes que va a emitir la Agencia Vasca del Agua URA, sobre las actuaciones previstas sobre el cauce.

Andrade jaunak esan du Alderdi Popularrak ibai ibilguaren oztopoak kentzearen aldeko jarrera bilatuko duela Osoko Bilkuran, URA-k burutzen dituen zehaztapenak alde batera utzi gabe.

El Sr. Andrade indica que el grupo Popular busca la posición política del Pleno favorable a que se eliminen los obstáculos del cauce del río, sin perjuicio de respetar las determinaciones que realice URA.

Arregi jaunak adierazi du URA ibaien ibilguak babesteko erakunde eskuduna dela eta une oro bat egingo dutela bere argibideekin.

El Sr. Arregi indica que URA es el órgano competente para la salvaguarda de los cauces de los ríos y se van a ajustar en todo momento a sus indicaciones.

Erreferentziazko Mozioa botaziora eraman ondoren, hurrengo emaitza lortu da: PP alderdiaren aldeko 10 boto, PSE-EE eta A alderdien 5 abstentzio, eta EAJ alderdiaren aurkako 8 boto.

Sometida la Moción de referencia a votación, obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor del PP, 5 abstenciones del PSE-EE y A, y 8 en contra del PNV.

Ondorioz, ontzat eman zen gehiengoaren bidez:

En consecuencia, se aprobó por mayoría:

"GOBELA IBAIAREN ZABALERA BERRESKURATZEA

"RECUPERAR LA ANCHURA DEL RÍO GOBELA

Duela gutxi egiaztatu ahal izan dugu Eusko Jaurlaritzak Gobela ibaian burutzen ari diren lanak eten egin dituela, Errekagane kale parean, Estazio plaza ondoan.

Recientemente hemos podido constatar como el Gobierno Vasco ha paralizado las obras que se están efectuando en el río Gobela a la altura calle Errekagane junto a la plaza de la Estación.

Aipatutako lanak eten egitearen ondorioz, udal Gobernu taldeari errieta egiteaz gain, ibaian jarduteagatik horretarako eskumenik izan gabe, jakin ahal izan dugu ibai ertza inguratzen zuen oinezkoentzako plataforma kendu nahi dela eta gune hori guztia begetazioz estali nahi dela.

La citada paralización de las obras además de suponer un tirón de orejas al equipo de Gobierno municipal por actuar sobre un río sin tener competencias para ello, nos ha permitido descubrir que se quiere retirar la plataforma peatonal que bordeaba la orilla del río y recubrir toda la zona de vegetación.

Edozein arrazoi dela eta, oinezkoentzako plataforma kentzea erabaki bada, gure ustez, orain egin beharko litzatekeena ibaiari jatorrizko egoera itzultzea da, jatorrizko zabalera

Si por algún motivo se ha decidido retirar esa plataforma peatonal consideramos que lo que ahora procede es devolver al río a su situación original, devolviendo al rio su anchura

berreskuratuz eta ur emariari oztopo guztiak kenduz, egun hauetan Asturiasen ikusi dugun bezala, ibaiak bere bide osoa behar duelako aurrera joan ahal izateko.

original y eliminar cualquier obstáculo al paso del agua que como vemos estos días en Asturias, necesita todo su camino para poder circular.

Gure ustez, metro erdiko plataforma zahar hori kentzearekin eta ibaia estutzen jarraitzearekin bakarrik urari ibaitik zehar ibiltzea oztopatzen diogula (hala adierazi zuen Euskal Herriko Auzi Gorenaren epai batek), ezin da oztopoz bete, bere egunean egin zen bezala.

Entendemos que levantar esa antigua plataforma otro medio metro y continuar el estrechamiento del río solo supone entorpecer la libre circulación del agua por este río(pues así lo denominó una sentencia del Tribunal Superior de Justicia del Pais Vasco), no puede llenarse de obstáculos como se hizo en su día.

Hori guztia dela eta, Udaleko Alderdi Popularrak, eztabaidatzeko eta ontzat emateko, Osoko Bilkurara ekarri du akordio proposamen hau:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular eleva ante este Pleno para su debate y aprobación la siguiente propuesta de acuerdo:

LEHENENGOA.- Ahalik eta azkarren Gobela ibaiaren ertza erreformatzeko proiektua aldatzea, 25 metro luzera eta 75 metro altuera duen zementuzko plataforma kenduta, ibai ibilgua jatorrizko zabalerara zabaltzeko helburuarekin.

PRIMERO.- Que a la mayor brevedad se proceda a modificar el proyecto de reforma del margen del río Gobela, quitando la plataforma de cemento, de 25 metros de longitud y 75 de altura, con el objetivo de ensanchar el cauce del río a su anchura natural

BIGARRENA.- URA Agentziari Udaleko Osoko Bilkurak hartutako erabaki honen berri ematea.

SEGUNDO.- Que se informe a la Agencia URA sobre la decisión tomada por este Pleno Municipal.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri ematea udaleko komunikabideetan."

TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales."

**<u>112.- PARTIDO POPULAR ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GETXOKO ALKATEA GAITZESTEKO.</u>**

**<u>112º.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ REPROBACIÓN AL ALCALDE DE GETXO.</u>**

Marisa Arrue andreak hurrengo Mozioa irakurri du:

"GETXOKO ALKATEA GAITZESTEA

1983. urtean, Getxok bere azken urteotako uholderik larrienenak izan zituen. Denok egiaztatu ahal izan genuen Getxon bazegoela euri asko egiten zuenean urez gainezka egiten zuen hainbat gune.

Egun horretatik eta EAJ alderdiaren agindupean, Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak ez zuten ezer egin Getxok uholdeekin zituen arazoak konpontzeko, Valdes-en gainezkabidea eta ibaiari buruzko jarduera plan orokor bat izan ezik, kutxa batean gorde zena.

2008. urteko ekainaren 1ean, Getxon uholdeak izan ziren berriz, ura 56 etxebizitzetan, 104 ataritan, 550 ibilgailutan, 31 garajetan, 17 dendetan, 2 eskoletan eta Fadura Kiroldegian sartu zen eta bizilagunei hamaika nahigabe eragin zien, baita 11 milioi euro inguruko galerak ere.

Orduan Landa Alkateak erabaki zuen azkenean gaiari ekin egitea, hainbat urtetan egin ez zena egiteko, eta ekainaren 1ean gertatutakoari buruzko azalpenik eman gabe, uholdeen batzorde bat sortu zuen. Bertan, alkateak denok (bizilagunak eta alderdi politikoak) denbora luzez geldituta eta engainatuta mantendu gintuen, ibaian ezer egin gabe.

Bitartean, oposizioko alderdiek ibaiari buruzko arazoak konpontzeko aukera

Marisa Arrue da lectura a la siguiente Moción:

"REPROBACIÓN AL ALCALDE DE GETXO

En el año 1983 Getxo sufrió las inundaciones más graves de su historia reciente, todos pudimos constatar que Getxo tenía una serie de zonas que se inundaban cuando llovía de forma extraordinaria.

Desde aquella fecha y bajo mandato del PNV en Ayuntamiento, Gobierno Vasco y Diputación, nada se hizo por solucionar los problemas de inundabilidad de Getxo salvo el conocido como aliviadero de Valdés y la redacción de un plan de actuación global sobre el río que fue guardado en un cajón.

El 1 de junio de 2008 las inundaciones volvieron a Getxo, el agua entró en 56 viviendas, 104 portales, 550 vehículos, 31 garajes, 17 locales comerciales, 2 centros escolares, el centro Deportivo de Fadura y supusieron incontables quebrantos entre los vecinos, así como unas pérdidas económicas cercanas a los 11 millones de euros.

Fue entonces cuando el Alcalde Landa decidió por fin ponerse a trabajar en el asunto, para hacer lo que no se había hecho en tantos años, y sin dar explicaciones por lo acontecido el 1 de junio, creó una comisión de inundaciones en la que el alcalde nos tuvo a todos, vecinos y partidos políticos, entretenidos y engañados durante mucho tiempo, mucho tiempo en el que sobre el río nada quiso hacer.

Mientras, los partidos de la oposición dimos luz verde y manga más que

suertatu genuen, eta bizilagunak beste etxetara eramatea proposatu genuen ere, lanak burutzen ari ziren bitartean, "ezustekorik" izan ez zedin.

generosa para que se solucionasen los problemas sobre el río, proponiendo incluso el realojo de los vecinos para evitar nuevos "sustos" mientras se ejecutaban las obras.

2009ko urtarrilaren 27an, euri zaparradak berriz itzuli ziren Getxora, nahiz eta "estatistika-egileek" bileretan esan, hori bakarrik 50 edo 100 urtez behin gertatzen zela. Orduan, 4 etxebizitza, hamar bat garaje kaltetu ziren eta bost lagun beste etxe batera eraman behar izan ziren.

El 27 de enero de 2009 las lluvias intensas volvieron a Getxo a pesar de que los "estadistas" comentaban en las reuniones que esto sólo pasa cada 50 o 100 años. En aquella ocasión fueron 4 las viviendas afectas, una decena de garajes afectados y cinco personas realojadas.

Gobela ibaia konpontzeko lanetan, gure Alkateak "lan egiten" ziharduen, baina zangan ez zegoen inor.

En las obras de arreglo del río Gobela, nuestro Alcalde seguía "trabajando" pero en la zanja no había nadie.

2009ko urtarrilaren 30ean, Udal honen Osoko Bilkurak, ahobatez, ontzat eman zuen uholdeen aurkako plan ezaguna, 20 milioi eurotan, 2009ko ekainean hasteko eta 12 hilabeteko exekuzio epe batekin. Horrenbestez, 2010eko ekainean lan guztiak amaituta egon behar ziren.

El 30 de enero de 2009, el Pleno de este Ayuntamiento por unanimidad aprobó el conocido plan contra las inundaciones por importe de 20 millones de euros con comienzo de ejecución en el mes de junio de 2009 y un plazo de ejecución de 12 meses por lo tanto en junio de 2010 la totalidad de las obras tenían que estar finalizadas.

Hala ere eta prentsaurrekoak eman eta bileretarako eta batzordeetarako deialdiak besterik egiten ez zuen gure Alkatearen jarduera ezak premiazkoak ziren lanak gero eta gehiago luzatzen zituen.

